

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Larreak erretzeko debekua jarri da astelehenera arte sutea pizteko dagoen arrisku handiagatik, iparraldean bereziki

14:30ean, Goizuetan sortutako basoko suteak aktibo jarraitzen zuen; berrogeita hamar bat hektareari eragiten dio

Jueves, 17 de diciembre de 2015

Babes Zibileko Zerbitzuak Nafarroa osoan larreak erretzeko debekua jarri du sutea pizteko dagoen arrisku handiagatik, Foru Komunitateko iparraldean bereziki; izan ere, inguru horretan landaretzak hezetan gutxi du, eta datozen egunetarako, tenperatura altua eta hegoaldeko haizea [aurreikusita](#) daude.

Gainera, Babes Zibileko Zerbitzuak mendirako irteeretan kontu handiz ibiltzeko gomendatzen du, bai eta Barranka, Baztan, Bidasoa, Leitzarán eta Pirinioetako landaguneetan ere, basoek su hartu ez dezaten.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak suhiltzaileek lanean jarraitzen dute atzo arratsaldean Goizuetan piztutako sutea kontrolatzeko; 50 bat hektareari eragiten dio (pagadiak, iratzeak, txilarrak eta lerki-pinuak) lehenengo balorazioen arabera.

Barneko Zuzendaritza Nagusiak hogeita hamar suhiltzaile mugiarazi ditu parke nagusian (Cordovilla), Altsasun eta Oronozen, bai eta Goizueta nahiz Leitzako boluntarioak ere. Langile horiek sutearen tokiraino oinez bakarrik joan daitezke, luraren orografia malkartsua dela-eta, ibilgailuz joatea eragozten baitu.

Gainera, helikopteroak ezin izan du hegan egin arratsaldeko lehenengo ordura arte inguruan zegoen haizeteagatik. Tokian bertan daude ere, Basozainen Ataleko langileak eta foruzainak.

Sutea atzo, asteazkena, piztu zen 20:30 aldera Leitza eta Goizueta arteko Manduegi mendi-mazelan, malda handiko amildegien gunean. Goizuetako suhiltzaileen boluntario batek medikuaren laguntza behar izan



Goizuetako suteak eragindako kearen ikuspegia.

zuen kea arnasteagatik intoxikazio-sintomak baitzituen (arinak, hasiera batean). Osasun-zentroan artatu zuten, eta Donostiako ospitalera eraman zuten gero.